

PROIEKTUAREN ITZULTZEA

DEVOLUCIÓN DEL PROYECTO

GETXO KIROLETARAKO BIZIKLETA ETA PATINETEETARAKO
APARKALEKUEN PROIEKTUA ITZULTZEA

DEVOLUCIÓN DEL PROYECTO DE APARCABICIS Y APARCAPATINETES
PARA GETXO KIROLAK

“thinking Fadura. Getxoko herritarrekin batera eraikitzen ari den kirol-parkea” parte-hartze bidezko prozesuaren webgune ofizialera. Getxo Kirolak-ek sustatutako prozesu horren helburua Fadura parke publiko bihurtzea da; Getxo Kirolak-en abonatuak kirola egiteko erabiltzen dituzten kirol-instalazioen ondoan egongo da parke hori, jarduera fisikorako elementu pizgarriak gehituz, ingurumenaren arloan aurrerapausoak eginez, aisiaren, osasunaren eta kirolaren sektorean enplegua sortuz eta guneetarako sarbidea eta kontrola hobetuz.

“thinking Fadura, un parque deportivo en construcción con la ciudadanía de Getxo”, es un proceso participativo, impulsado por Getxo Kirolak, para transformar Fadura en un parque público, que conviva junto con las instalaciones para la práctica deportiva de las personas abonadas a Getxo Kirolak, incorporando nuevos elementos que motiven la actividad física, logren mejoras medioambientales, incrementen el empleo en el sector del ocio, la salud y el deporte y mejoren el acceso y control de los espacios.

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK
2. PROIEKTUAREN HELBURUA
3. KONTUAN HARTU BEHARREKO BALDINTZAK

thinking **Fadura**
Getxoko Kirol Parke Berria



1

AURREKARIAK

thinking Fadura

Getxoko Kirol Parke Berria



Fadurako instalazioen pertsona erabiltzaileen aldetik Fadurako eremuaren erabilera beharrekiko bizikleten eta patineteen gaineko sistema seguru, praktiko eta egoki bat eskura izateko eskari bat dago.

Ildo horretatik, Getxo Kirolak aparkaleku sistema honetan barne hartzeko behar zehatzak atzematera bideratutako ekintza ezberdinak garatzen aritu da, Fadurako pertsona erabiltzaileei kirol instalaziotara sartzeko mugikortasun seguru eta jasangarri bat ahalbidetzeko.

Hiritarrei entzutera bideratutako ekintzen emaitza bezala (formulazio bidez eginiko datu bilketa eta pertsona adituekin eginiko lan-saioa) Fadurako kirol parkean **bizikletak eta patineteak aparkatzeko irtenbideak planteatzeko orduan kontuan hartu beharreko hainbat baldintzekin kontaktzen dugu.**

2

PROIEKTUAREN HELBURUA

thinking Fadura

Getxoko Kirol Parke Berria



- 1.** Baldintza teknikoak eta hedatzekoak definitu (kokalekuak barne) etorkizuneko aparkalekuen garapenerako, abiapuntutzat hartuta Fadurako pertsona erabiltzaileek dituzten beharrak eta haiek hala nola kontsultatuak izan diren mugikortasuneko pertsona adituek eginiko ekarpenak.
- 2.** Lehenengo prototipo bat ekoitzi, hedatu eta ebaluatu, erabat funtzionala eta operatiboa, Getxo Kirolak-ek irtenbide horren egokitasuna ziurtatu ahal izan dezan.
- 3.** Kontuan hartu 3. Kontuan hartu beharreko baldintzak atalean barne hartutako ekarpen guztiak.
- 4.** Faduran hedatzeko bizikleta-aparkalekuen eta patinete-aparkalekuen ezaugarriak dakartzan dokumentu bat ekoitzi.

3

KONTUAN HAR- TU BEHARREKO BALDINTZAK

3.1. Aparkalekuen tipologiak

Parking banatu eta irekiak.



Bizikletak eta patineteak kanpoko guntan eta sarbide kontrolik gabekotan ainguratu ahal izateko beharrezko elementuen multzoari dagokio. Herri-tarrei entzutea eta Getxo Kirolak-eko langileekin eginiko egiaztatzea lagungarriak gertatu dira irtenbide mota hau instalatu ahal izateko modukoak liratekeen 12 kokaleku arteko kopuru totala atzemateko.

Parkin zentralizatua.



Irtenbide mota honetan, ainguraketa elementuak eskura izatea lortzeko sarbide kontrol bat gainditu behar da Getxo Kirolak-en harpidetutako pertsonaren txartela baliatuz. Bizikletak eta bizikleta-aparkalekuak biltegitatzeko bereziki prestatutako lekuak dira.

3.1. Aparkalekuen tipologiak

Bizikleta-aparkalekue- tako ainguraketa ele- mentua.



Bizikleta lotzeko (giltzarrapoa jartzeko) elementu fisikoari dagokio. Dokumentu honetan bi baldintza ezberdin definitzen dira parkin motaren arabera (banatua edo zentralizatua).

Patinete-aparkalekurako ainguraketa elementua.



Patineteek, bizikletekiko bere ezaugarri bereizgarriengatik, aurrerago zehazten den ainguraketa sistema ezberdin bat eskatzen dute.

Ekonomia zirkularra.




Ahal den neurrian ekonomia zirkularraren irizpideak errespetatu behar dira, material berrerabiliak eta etorkizunean berrerabili ahal izango direnak erabiliz, horren ondorioz materialen sendotasunarekin lotutako alderdiak konprometitu gabe.

3.2. Parkin banatu eta irekiak

3.2.1. Bizikleten ainguraketa


- Material sendoa, mardula eta mantenua errazten duena.
- Dimentsioak eta diseinua:
 - Bizikletaren koadroa estali behar du.
 - Erosoak, estaliak eta erraz kandatzeakoak izan behar dira; 70-80 cm-ko altueran edo 60 cm inguruko altuera ertainean eginiko ainguraketa.
 - “U” alderantzikatu erako eredu baten aldeko apustua. “U” erako euskarri bakoitzak 2 bizikleta aparkatzea ahalbidetzen du, albo bakoitzean bat.
- Funtsezkoa da diseinua erakargarria izatea, ez bakarrik “U” erako elementuan, multzo osoaren konposizioan ere bai. Helburua da bizikletaren erabilera erakargarria gertatzea.
- Aniztasun funtzionalerako trizikloek seinaleztapen motaren bat beharko dute kanpoko “U” haietan lehentasuna izan dezaten.



3.2. Parkin banatu eta irekiak

3.2.2. Patineteen ainguraketa

- Material sendoa, mardula eta mantenua errazten duena.
- Pertsona adituekin egiaztatzeko saioan orientabide proposamen hau zirriboratu da.
- Proposatutako diseinu motak komunikazio mezu eta edukien errotulazioa baimentzen du, esaterako adierazleak, seinaleetika, etab.
- Patineteen erabilera askoz urriagoa da bizikleten erabilerarekiko. Beraz, nahikoa izan liteke parkin bakoitzean patinetea ainguratzeko elementu bakarrarekin kontaktzea.



3.2. Parkin banatu eta irekiak

3.2.3. Segurtasuna eta jasangarritasuna

Bizikleta eta patinetetarako aparkaleku sistemak erabiltzeko ingurunetan bermatu beharko dira segurtasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutako honako alderdiak, eta horretarako Getxo Kirolak-en berariazko babesarekin kontaktuko da:


- Aparkalekuen ikusgarritasuna pasagune eremuetatik, edota kirol jarduera praktikatzen den tokitik. Honek barne hartzen du tokiaren argiztapen iraunkorra, zein ingurune ezin hobe batean energia berriztagarriaz eta bere kabuzko moduan elikatuko litzatekeen.
- Bideo-zaintza iraunkorraren sistema, portaera susmagarriak atzeman ahal izateko eta Udaltzaingoarekin konektatutako irudiaren analitika barne.
- Parkeko langile laguntzaileen prozeduren egokitzapena aldizka ikuskatzea zainduz.
- Bizikletak eta patineteak eguraldi txarren eraginez gehiegi hondatu ez izan arren, interesgarria litzateke estaldura motaren bat aurreikustea pertsonak busti ez daitezen bizikleta edo patinetea kandatzen duten unean.
- Aparkalekuan hainbat adierazpen existitu beharko lirateke bizikletak nola kandatuko diren esateko, haien segurtasuna bermatze aldera. Halaber txirrindularitza alorrerako kasko, argi eta bide segurtasunaren gainean funtsezko neurriak dakartzaten oinarritzko adierazpenak barne hartu beharko lirateke.

3.3. Parkin zentralizatuak eta itxiak

3.3.1. Bizikleten ainguraketa

Kasu honetan, halaber kontuan hartzen da bizikletak paretetan zintzilikatzeko ainguraketa elementu bat erabiltzeko aukera. "U" erako ainguraketa edo zintzilikari mota baten hautaketa, erabilitako azalera kalkulua eta haren optimizazioa kontuan hartuta egingo da. Ainguraketarako zintzilikatze sistemak bete behar dituen ezaugarriak dira:

- Material sendoa, mardula eta mantenua errazten duena.
- Aparkaleku itxietan ainguraketak zintzilikatu edo jarri ahal izateko paretak existitzen badira, ereduak izan liteke:
 - Bizikletak sabaitik zintzilikatzea aurreko gurpiletik.
 - Pareta bati atxikitako koadrotik zintzilikatzea.
 - Bi mailako aparkaleku motan, bizikletak bertikalki zintzilikatu bi gurpilak erabiliz.
- Garrantzitsua da diseinua erakargarria izatea. Kontua da bizikletaren erabilera erakargarria gertatzea.



3.3. Parkin zentralizatuak eta itxiak

3.3.2. Segurtasuna eta sarbidea



- Esparrurako sarbidea Getxo Kirolak-eko pertsona harpidedunaren txartela erabiliz.



- Bideo-zaintza iraunkorraren sistema, portaera susmagarriak atzeman ahal izateko eta Udaltzaingoarekin konektatutako irudiaren analitika barne.



- Parkeko pertsonal laguntzailearen prozedurekiko egokitzapena, aldizka ikuskatzea zainduz.

3.4. Baztertutako baldintzak

Udalerriko mugikortasun jasangarrian adituak diren pertsonekin eginiko lanetik abiatuta, jarraian etorkizuneko bizikleta-aparkalekuen eta patinete-aparkalekuen diseinutik baztertuta geratu diren hainbat baldintza zehazten dira.

- **Bateriak kargatu.** Gaur egun ez dago konektore bateratu estandarrik. Gainera, honek sendotasun baldintza batzuk bermatu beharko lituzke, pertsona erabiltzaileen aldetik erabilera intentsibo bat ahalbidetu beharko luketenak.
- **Bizikleten oinarrizko mantenurako zerbitzu gehigarriak.** Gaur egun dagoeneko erabilgarri dago Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu horietarako prestatutako gune bat.

thinking Fadura
Getxoko Kirol Parke Berria



ESKERRIK ASKO!
¡MUCHAS GRACIAS!